

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

279/2026 Foru Agindua, uztailaren 28koa, Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrietako lurzoru urbanizaezinean kokatutako "Arratzua, Eki Bat eta Eki Bi" eguzki instalazio fotovoltaiakoei buruzko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duena

Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrietako lurzoru urbanizaezinean kokatutako "Arratzua, Eki Bat eta Eki Bi" eguzki instalazio fotovoltaiakoei buruzko plan berezia izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatu behar da. Prozedura hori, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak arautzen dute. Ingurumen ebaluazioaren prozedura honen izapidetzearen ondorioetarako, organo substantiboa Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila da; sustatzailea, SAN MIGUEL ISFV SL enpresa; eta ingurumen txosten estrategiko hau emateko eskumena duen ingurumen organoa, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saila.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak urriaren 23an emandako 540/2025 Foru Aginduaren bidez, SAN MIGUEL ISFV SL enpresak sustatutako "Arratzua, Eki Bat eta Eki Bi" izeneko eguzki instalazio fotovoltaiakoei buruzko plan berezia izapidetzeko eta onesteko prozedurari hasiera eman zitzaion, Arabako Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz udalerrietako lurzoru urbanizaezinean. Plan berezia izapidetzea, eta hala badagokio, onestea, Arabako Foru Aldundiari dagokio.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak idazki bat jaso zuen 2025eko urriaren 28an. Idazkia Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak bidali zuen (plana izapidetu duen organo substantiboa), eta haren bidez jakinarazi zen lehen aipatutako 540/2025 Foru Agindua eman eta onetsi zela. Planaren zirriborroa eta ingurumen dokumentu estrategikoa bidali ziren, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 29. artikuluan ezarritako edukiarekin bat etorritik, eta ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedurari hasiera emateko eskatu zen.

Kontsulta epea amaitu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailari dagokio ingurumen txosten estrategiko hau ematea, 10/2021 Legearen 7. artikulua emandako eskumenak baliatuz, ingurumen ondorioetarako bakarrik, Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz udalerrietako lurzoru urbanizaezinean kokatutako "Arratzua, Eki Bat eta Eki Bi" eguzki instalazio fotovoltaiakoei buruzko plan bereziari dagokionez.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2026ko ekainaren 16an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (25/74 espediente).

1. Aurrekariak

Plan berezi hau eragin duten "EKI BAT", "EKI BI" eta "ARRATZUA" eguzki instalazio fotovoltaiakoen proiektuei dagokienez, ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozeduraren mende jarri dira. Proiektu horien ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura izapidetu eta bideratzeko eskumena duen ingurumen organoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza da; izan ere, administrazio horretan dago proiektuok onesteko eskumena duen organo substantiboa (Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza). Proiektu

mailako ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura horren esparruan, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak proiektuen ingurumen balorazioari buruzko txostena eman zuen, eragindako administrazio publikoei egindako kontsulten fasean, 2025eko otsailaren 19an.

Puntu honetan, adierazi behar da ingurumen organoak oraindik ez duela argitaratu proiektu horien ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedurari amaiera ematen dion ingurumen inpaktuaren adierazpena (IIA).

Nolanahi ere, AFAko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eragindako administrazioei egindako kontsulta fasean emandako ingurumen txostenean azaltzen zenez, EKI BAT eta EKI BI eguzki instalazio fotovoltaiakoak kokatzen diren baso zerrendak Larragana OPMren eta mendi horren hego mendebaldean dauden eremuen arteko konektagarritasuna bermatzen du. Horregatik, EKI BAT eta EKI BI instalazioak ezartzeak -VITORIA SOLAR 1 eguzki instalazio fotovoltaiakoaren (EIFV) mugakideak baitira (ingurumen inpaktuaren aldeko adierazpena duen instalazioa)- eremuaren konektagarritasunean onartezina den inpaktua izango zuela jotzen zen; beraz, aurkeztutako proiektutik kendu egin behar ziren.

Bestalde, emandako txostenean adierazten zen, halaber, Arratzua-Ubarrundiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hirigintza araudia kontuan hartuta, EKI BAT eta EKI BI EIFV 1-8-3-1162 katastro erreferentziako lurzatia okupatzearekin ez zela beteko udal plangintzan aurreikusitako "babes berezia"; izan ere, plangintzaren helburua eremu horrek kalitate maila handiagoetara eboluzionatzea da, eta lurzatia industria eremu bihurtuko litzateke. Horrez gain, adierazten zen instalazio fotovoltaiakoek okupatutako eremuak muga gehigarriak dituela "korridore ekologikoen sarea" gaineratutako baldintza gehigarriaren ondorioz; haren arabera, jarduketek mugatutako eremuari lotutako korridore ekologikoaren izaera bermatu beharko dute. Gaineratutako baldintza horrek zuzenean eragiten dio EKI BAT eta EKI BI EIFV okupatutako eremuari.




1. irudia. EKI BAT EIFVaren (laranjaz), EKI BI EIFVaren (arrosaz) eta ARRATZUA EIFVaren (gorriz), eta VITORIA SOLAR 1 proiektuko EIFVen (horiz) kokapena

2. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

2.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena.

Plan berezi honen xedea da "ARRATZUA" (2 MWn), "EKI BAT" (1 MWn) eta "EKI BI" (1 MWn) izeneko 3 eguzki instalazio fotovoltaiko (EIFV) ezartzeko aurreikusitako jarduketak definitzea, bai eta horien ebakuazio azpiegiturak ere. Azpiegitura horiek 30 kV-ko lurpeko ebakuazio lineak osatzen dituzte, eta Vitoria-Gasteiz azpiestazioko (30 kV) Vitoria-Gasteiz-GOIAIN 1-2 30 kV-ko lineara konektatuko dira, 9. eta 8. euskarrien arteko tartean. Obrak Arratzua-Ubarrundiako udalerrian garatuko dira, linearekiko konexioa izan ezik; izan ere, hori Vitoria-Gasteizko udalerrian egingo da. Aurkeztutako ingurumen dokumentuan adierazten denez, jarduketa 3 eguzki instalazio fotovoltaikoek eta tentsio ertaineko ebakuazio lineak osatzen dute. Horiek guztiak jarduketa bakar gisa definitu eta diseinatu dira, xede eta funtzionamendu berarekin; beraz, ezin dute bereizita jardun, elkarren osagarri baitira. Proiektu honen sustatzailea SAN MIGUEL ISFV, S. L. merkataritza sozietatea da.



2. irudia. EKI BAT, EKI BI eta ARRATZUA EIFVen plan bereziaren eremuaren, ebakuazio linearen eta lberdrola enpresak emandako konexio puntuaren kokapena


EKI BAT, EKI BI eta ARRATZUA eguzki instalazio fotovoltaikoak ezartzeko plan bereziak eremu eten bat du, eta itxitura bi zatitan edo bi uhartetan banatzen du. Ekialdean, Zarrinkueta parajea, ARRATZUA EIFVa dago; mendebaldean, berriz, Alto Dominain parajea, EKI BAT eta EKI BI EIFVak daude. Bi uhartetxoek guztira 67.953,99 m² hartzen dituzte, antolamendu eremuari atxikitako katastro lurzatie azalera osoa, guztira, 180.575 m²-koa bada ere.

Plan bereziaren aplikazio eremuak Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Mendibilen kokatutako lurzoru urbanizaezineko lurzatiei eragiten die. EKI BAT eta EKI BI EIFVak 1-8-3-1162 katastro erreferentziako lurzatie kokatuko dira. Lurzati horrek 146.135 m²-ko azalera du, eta horietatik 30.882,73 m² hesituko dira. Lurzati horretan, 64.683 m² lehorreko laborantzara bideratuta daude, eta gainerako 81.452 m² ak baso garaiari dagozko; azken eremu horretan kokatuko da instalazio horien zatirik handiena. ARRATZUA EIFVa 1-8-3-1130 katastro lurzatie kokatzen da. Lurzati horrek 34.440 m²-ko azalera du eta ureztatutako laborantzara bideratuta dago; horietatik 27.639 m² hesituko dira. Azkenik, konexio puntua Vitoria-Gasteizko udalerriko Ullibarri Arratzuako 1-59-36-189 katastro erreferentziako lurzatie dago. EKI BI EIFVa Mendibil herrigunetik 410 metro ingurura dago, ekialdera, eta Duranako hirigunetik 960 metro ingurura, iparraldera.

Hiru eguzki instalazio fotovoltaiko horiek elkarrengandik independenteak dira, baina energia elektrikoa ekoizteko beharrezkoak diren zenbait elementu komun dituzte. Elementu horiek, kopuruari eta banaketari dagokienez baino ez dira desberdintzen; besteak beste, modulu fotovoltaikoak, jarraitzaileak eta inbertsoreak. Jarraian, proiektatutako EIFVen ezaugarri orokorrak ageri dira taula honetan:

	EKI BAT	EKI BI	ARRATZUA	GUZTIRA
Modulu fotovoltaikoen kop.	1.665	1.665	3.150	6.480
Moduluaren unitateko potentzia (Wp)	700			
Instalazioaren potentzia erpina (MWp)	1,16	1,16	2,21	4,53
Inbertsore kop.	8	8	8	24
Inbertsoreen potentzia (kW)	125			
Instalazioaren potentzia izendatua (MWn)	1	1	2	4
Pitch (m)	5			
Okupatutako azalera (ha)	3,09			5,85
Perimetrotako hesiaren luzera (m)	732			1.479
Ebakuazio linearen luzera (m)	1.624			2.569
30 moduluko jarraitzaileak	55	44	85	184
15 moduluko jarraitzaileak	1	23	40	64
Transformazio zentroak	1	1	1	3

Proiektuaren arabera, modulu fotovoltaikoak ardatz bakarreko jarraitzaileen gainean instalatuko dira. Euskarri egitura horien zimenduak egiteko ez da lur mugimendurik egin beharko, zutabeak lurrean sartuta baitaude. Gainera, eguzki instalazio fotovoltaiko bakoitzak 8 inbertsore izango ditu, sortutako energia korrante zuzenetik korrante alternora bihurtzeko, eta transformazio zentro bat ere izango du, inbertsoreen arteko behe tentsioa tentsio ertainera igotzeko.



3. irudia. Plan Bereziaren planoak: azken irudi orientagarria (ortoargazkiaren gaineko gainjartzea)

Instalazioa gauzatzeko epea 5 hilabetekoa izango dela aurreikusten da. Sustatzaileak aurkeztutako dokumentuaren arabera, instalazio fotovoltaikoek gutxienez 25 urteko bizitza erabilgarria izango dute, eta litekeena da beste 10 urtez edo gehiagoz luzatzea.

Zonakatze xehatua.

Plan bereziak erabilera xehatuko lau eremu mugatzen ditu:

— Plaka fotovoltaikoen eta instalazio osagarrien ezarpen eremua.

Instalazioari lotutako plaka fotovoltaikoak, inbertsoreak eta instalazio osagarriak jartzea baimentzen den eremuari dagokio.

Erabilera bateragarriak dira, besteak beste, espazio libreak eta berdeguneak; lurperatutako linea elektrikoak; parke fotovoltaikoarekin bateragarriak diren nekazaritza, basogintza eta/edo abeltzaintzako erabilerak; eta parke fotovoltaikoari lotutako eta/edo harekin bateragarriak diren ikerketa eta dibulgazio zientifikoko jarduerak eta ingurumen hezkuntzakoak. Debekatutako erabilerak izango dira parke fotovoltaikoarekin bateragarriak ez diren erabilera guztiak.

Eraikuntzen araubideari dagokionez, baimena ematen da transformazio zentroetarako etxolak eta parke fotovoltaikoari lotutako beste instalazio eta azpiegitura batzuk ezartzeko, PO.02. planoan ezarritako lerrokaduren barruan. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak. Horrez gain, hirigintza parametro hauek ezartzen dira: mugetarako tartea: 10 m; gehieneko okupazioa: PB eremuaren ehuneko 10 baino txikiagoa ($< 6.795 \text{ m}^2$); gehieneko altuera: 4 m; eta solairu kopurua: 1.

Eremu horren mugaketak errespetatzen du eremu osoan mugetatik 10 metroko gehieneko lerrokadura. Baimena ematen da transformazio zentroetarako etxolak eta parke fotovoltaikoari lotutako beste instalazio eta azpiegitura batzuk ezartzeko, PO.02. planoan ezarritako lerrokaduren barruan. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak. Mugetarako tartea 10 metrokoa izango da.

— Plaka fotovoltaikorik gabeko zona.

Perimetroko itxituraren gehieneko mugaren eta instalazioaren gehieneko inguratzailearen artean dagoen eremuari dagokio (plaka fotovoltaikoak ezartzeko eremua eta instalazio osagarrien eremua). Erabilera nagusia berdegunea izango da, bai eta instalazioa mantentzeko igarobidea ere. Erabilera bateragarriak eta debekatutako erabilerak aurreko eremuko berberak dira. Eraikuntzen araubideari dagokionez, itxitura jartzea baimentzen da, PO.02 Antolamendu Orokorra. Lerrokadurak eta sestrak planoan ezarritako perimetroko itxituraren gehieneko muga errespetatuta. Hala ere, eremu horretan ez da baimentzen eraikinik egitea ez eta plaka fotovoltaikoak jartzea ere. Alineaciones y rasantes, pero no se permite edificar ni colocar placas fotovoltaicas en esta zona.

— Instalaziotik kanpoko eremua.


Eguzki instalazio fotovoltaikotik (itxituratik) kanpo dagoen eta plan bereziaren eremuaren barruan sartzen den eremuari dagokio. Arratzua-Ubarrundiako HAPOaren arabera sustatutako erabilera: nekazaritza, basogintza eta/edo abeltzaintzako erabilerak, baldin eta parke fotovoltaikoarekin bateragarriak badira. Erabilera bateragarriak: espazio libreak eta berdeguneak; lurperatutako linea elektrikoak; eta parke fotovoltaikoari lotutako eta/edo harekin bateragarriak diren ikerketa eta dibulgazio zientifikoko jarduerak eta ingurumen hezkuntzakoak. Debekatutako erabilerak: parke fotovoltaikoarekin bateragarriak ez diren erabilera guztiak. Eraikuntzen araubideari dagokionez, eremu horretan ez da baimentzen eraikinik egitea, ez eta plaka fotovoltaikoak jartzea ere.

— Ebakuazio lineak eragindako zortasun eremua.

Eguzki instalazio fotovoltaikoari lotutako ebakuazio linearen kable eroaleek lurpean okupatzen duten eremuari dagokio, erregelamenduz ezartzen diren sakoneran eta ezaugarriekin. Sustatutako erabilerak eta erabilera bateragarriak Arratzua-Ubarrundiako HAPOak ezarritakoak izango dira. Debekatutako erabilerak: kalifikazio orokorraren ondoriozkoez gain, eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 162. artikuluan lurpeko lineetarako ezarritakoarekin bat

etorri, debekatuta dago zuhaitzak landatzea eta eraikinak nahiz industria instalazioak eraikitzea eroaleak hartzen dituen zangak mugatutako zerrendan, zerrenda hori alde bakoitzean kanalizazioaren zabaleraren erdiaren adinako gutxieneko segurtasun distantziak handituta.

Segurtasun arrazoiengatik, instalaziorako sarbidea kontrolatzen dela bermatzeko, ezinbestekoa da instalazioaren perimetro osoa ixtea ahalbidetuko duen itxitura jartzea.



4. irudia. EKI BAT, EKI BI eta ARRATZUA EIFVen plan bereziaren zonakatzexehatua

Planaren zirriborroan jasotzen da maila handiagoko araudiaren zehaztapen nagusiak betetzen direla azaltzen duen sintesia; hain zuzen ere, bai interes publikoaren justifikazioari dagokionez, bai Arratzua-Ubarrundiako hirigintza araudia betetzeari dagokionez.

2.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

EKI BAT, EKI BI eta ARRATZUA EIFVak Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Mendibilen kokatutako lurzoru urbanizaezinean daude, eta horiei lotutako ebakuazio azpiegituren zati bat ere Vitoria-Gasteizko udalerriko Urizarri Arratzuan dagoen lurzoru urbanizaezinean kokatzen da.

Eguzki energia fotovoltaikoa sortzeko hiru instalazioak Arratzua-Ubarrundiako udalerriko 3. poligonoko lurzatietan daude. EKI BAT eta EKI BI EIFVak, bakoitza 1 MW-eko potentziakoa, 1162 lurzatian ezarriko dira, eta 30.883 m² okupatuko dituzte; hau da, katastro lurzatiaren azalera osoaren ehuneko 21. Bestalde, ARRATZUA EIFVa 1130 lurzatian dago, eta 27.639 m² okupatuko ditu, hau da, lurzatiaren azalera osoaren ehuneko 80 inguru. ARRATZUA EIFVak Mendibilgo erakundearen Larragana onura publikoko mendiaren (OPM) mugakide da.

Konexio puntua Vitoria-Gasteizko udalerriko 36. poligonoko 189 lurzatian dago. Ebakuazioa aipatutako lurzatian kokatutako sekzionamendu zentro berrian egingo da. Bertara iritsiko da EKI BAT eta EKI BI EIFVetatik datorren 1.624 metroko luzerako tentsio ertaineko lurpeko linea bat, eta ARRATZUA EIFVtik datorren 945 metroko luzerako beste lurpeko linea bat. 30 kV-ko tentsio ertaineko ebakuazio linea lurpekoa izango da (TELL), eta haren trazadura erregistratutako bideetatik igarotzen da.

TELLak Basotxoa erreka (ID: 13.230) eta Zubiate erreka (ID: 13.256) zeharkatuko ditu. Aurkeztutako dokumentazioan ez da argi geratzen Basotxoa erreka nola zeharkatuko den: proiektuan agertzen den bezala zulaketa gidatu bidez egingo den, ala aurkeztutako ingurumen inpaktuaren azterketa (IIA)z adierazten den bezala bidean bertan egingo diren zangen bidez. Zubiate erreka kasuan, zubiko plataformaren gaineko bidean egindako zanga baten bidez egingo da zeharkaldia.

EKI BI EIFVaren proiektuaren eremu geografikoa Mendibil herrigunetik 410 metro ingurura dago, ekialderantz, eta Duranako hirigunetik 960 metro ingurura, iparralderantz.

Azkenik, adierazi behar da 01-08-03-1130 lurzatia (ARRATZUA EIFVa) Ipar-mendebaldeko eremuko lur ureztatuaren barruan dagoela.

2.3. Aztertutako aukerak.


Teknikoki bideragarriak diren aukerak aztertzeko, sustatzaileak aurkeztutako ingurumen dokumentuan azaltzen du ingurumeneko eta teknikako baldintzatzaileak aztertu dituela. Aukeren azterlanean, mailaz mailako ebaluazioa egin da, erabiliko den teknologia, eguzki instalazioaren kokapena eta ebakuazio linearen trazadura kontuan hartuta.

Sustatzaileak zero aukera edo proiekturik ez gauzatzeko aukera ere aztertu du. Aukera horrek berekin dakar eguzki instalazioa eta hari lotutako azpiegiturak ez egitea. Sustatzailearen iritziz, aukera horren abantaila da ez diola eragiten eremuari, ez ingurune fisikoari, ez eta ingurune biologikoari ere; hala ere, baztertu egiten du, bideraezina delako, ez baititu helburuak betetzen. Aukera horrek berekin ekarriko luke proiektu honek energia elektrikoa sortzeko sistemari ematen dizkion ingurumen onurei uko egitea, energia berriztagarria delako eta berotegi efektuko gasik ez duelako sortzen.

Erabiliko den teknologiar buruzko hiru aukera aztertu ondoren, sustatzaileak ardatz bakarreko eguzki jarraitzaileak instalatzea hautatu du proiektuaren aukeratzat.

Instalazioak kokatzeko aukerak.

Hurrengo irudian, instalazio fotovoltaikoak kokatzeko aukeren banaketa eta emandako sarbide eta konexio puntua ikus daitezke.



5. irudia. Instalazio fotovoltaikoa kokatzeko aukerak

1 aukera (hautatua) Instalazio horiek Arratzua-Ubarrundiako udalerrian sakabanatuta egongo lirake (5. irudian gorrix adierazita). Guztira, gutxi gorabehera 5,85 hektareako azalera hartuko lukete, elkarrengandik 358 metro ingurura dauden bi lurzatitan banatuta. Instalazio horien itxuraren perimetro osoa 1.479 metro ingurukoa da. Aukera hori osatzen duten lursailak lehendik dagoen TELLeiko konexio puntutik 636 m eta 1.258 m-ra daude, hurrenez hurren.


2. aukera (hautatua izan ez dena): Instalazio horiek ere Arratzua-Ubarrundiako udalerrian sakabanatuta egongo lirateke (5. irudian urdinez adierazita). Guztira 5,12 ha inguruko azalera izango lukete, gutxi gorabehera 412 metroko distantzia duten bi lursailetan banatuta. Horien perimetroko hesiaren luzera osoa 1.353 m ingurukoa da. Aukera hori osatzen duten lursailak lehendik dagoen TELLEkiko konexio puntutik 1.186 m eta 1.486 m-ra daude, hurrenez hurren.

3. aukera (hautatua izan ez dena): Instalazioak Arratzua-Ubarrundiako udalerriko lursail bakar batean bilduko lirateke (5. irudian arrosaz adierazita). Guztira 6,43 ha inguruko azalera izango lukete, eta perimetroko hesiaren luzera 1.174 m ingurukoa izango litzateke.

Lurzoru erabilerei dagokienez, sustatzaileak azaldu du hiru aukerak laborantzako lurretan kokatzen direla nagusiki. Salbuespen nagusia EKI BAT eta EKI BI instalazioen 1. eta 2. aukerak dira; izan ere, baso lurzoru gisa sailkatutako lurretan kokatzen dira. Hidrografiari dagokionez, aukeretako bat ere ez dago ez ibilguetan, ez uholde arriskuko eremuetan. Azterketa eremuan dauden babes figura nagusiei dagokienez, proposatutako aukeretako bat ere ez dator bat Natura 2000 Sareko guneekin, ez natura gune babestuekin, ez Batasunaren intereseko habitatekin, ez eta onura publikoko mendiak ere. Paisaiaren ikuspegitik, 3. aukera izango da ikusgarriena, bai instalazioak elkartuta daudelako, bai A-3002 errepidetik hurbil dagoelako eta herriguneen artean kokatzen delako. Aitzitik, 1. aukera izango da ikusgaitasun txikiena izango duena, haie-tatik urrunen dagoelako. Azkenik, kontuan hartu behar da emandako konexio punturainoko distantzia funtsezko elementua dela aukera hautatzeko orduan. Alde horretatik, 1. aukera da konexio puntutik hurbilen dagoena. Horregatik guztiagatik, sustatzaileak 1. aukera hautatu du proiektua kokatzeko.

Ebakuazio linearen trazadura.

Proiekturako hautatutako kokapen aukera zehaztu ondoren, jarraian konexio punturantz doazen ebakuazio linearen hainbat mota eta trazadura zehazten dira. Ondoko irudian definitu-tako trazaduraren hiru aukerak aztertzen dira:



6. irudia. Ebakuazio linearen trazaduraren aukerak, konexio punturaino

— 1. aukera (morez, hautatutakoa): lurpean dago trazadura osoa, dauden bideen azpitik konexio punturaino doana. Gutxi gorabehera 1.679 m-ko luzera du. Aukera horrek Zubieta eta Basotxoa erreka zeharkatuko ditu.

— 2. aukera (horiz, hautatu ez dena): airetik doa trazadura osoa, lerro zuzenean, Eki Bat eta Eki Bi IFVen ezarpen eremutik TELLekeko konexio punturaino. Gutxi gorabehera 1.311 m-ko luzera du. Trazadurak onura publikoko mendien katalogoan jasotako erkamezti bat zeharkatuko du.

— 3. aukera (urdinez, hautatu ez dena): lurpean dago trazadura osoa, 1.802 m-ko luzerakoa.

1. trazadura aukera hautatu da, luzera txikieneko lurpeko linea delako eta lehendik dauden bideetatik baino ez delako igarotzen.

3. Kontsulta aldiaren laburpena

2025eko azaroaren 24an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsonen kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza	X
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	
URA - Uraren Agentzia	X
Ebroko Konfederazio Hidrografikoa	X
IHOBE- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Arabako Natur Institutua – ANI	
Eguzki talde ekologista	
Ekologistak Martxan	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Hontza Natura Elkarte	
Gaia elkarte	
Mendizaleen Federazioa. Ingurumen Atala	
Aranzadi Natura Zientzien Elkarte	
SEO Birdlife – Espainiako Ornitologia Elkarte	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
Arratzua-Ubarrundiako udala	X
Vitoria-Gasteizko Udala	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Mendibilgo Administrazio Batzarra	
Uribarri Arratzuako Administrazio Batzarra	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Vitoria-Gasteizko Kontzejuen Elkarte - ACOVI	
NORYESTE Ureztatzaileen Elkarte	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	

Orain, jasotako erantzunetan adierazitakoa laburbiltzen da (alegazioen edo oharren kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko 25/74 espedientean eta AFaren ingurumen ebaluazioaren webgunean dago eskuragarri: <https://irekia.araba.eus/es/-/25-74-plan-especial-de-las-psfv-eki-bat-eki-bi-y-arratzua-en-arratzua-ubarrundia-y-Vitoria-Gasteiz>).

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak txosten bat eman du. Hor adierazten du plan bereziak natura ondarean izan ditzakeen eragin nagusiak jada aztertu eta jakinarazi zituela NOKAZk, proiektuaren II Eren esparruan, eta ulertzen da ingurumen organoak formulatzen duenean ingurumen inpaktuaren adierazpenean (IIA) jasoko direla. Orobat, gogorarazten du II Aren baldintzak nahitaez bete beharko direla plan berezian ere, eta, era berean, proiektuaren ingurumen inpaktuaren azterlanean jasotako neurriak ere aplikatu beharko direla. Nolanahi ere, hirigintzako plangintza garatzeak natura ondarean dituen eraginei dagokienez, honako azterketa hau egiten du:

- Landaredia eta habitatak. Ingurumen dokumentu estrategikoan landarediaren eta habitaten gaineke eraginei buruz egiten den azterketa hitzez hitz jasotzen du elementu horri buruzko azterketa, zeina NOKAZk 2024ko abenduan jakinarazitako eguzki instalazio fotovoltaiakoaren proiektuaren ingurumen inpaktuaren azterlanean jaso baitzen. Beraz, ez da edukien inolako egokitzapenik egin, ez plan baten eta proiektu baten edukien arteko desberdintasunak kontuan hartuta, ezta 2024an jada nabarmendu ziren analisiko gabeziei dagokienez ere. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren (DEA3) arabera, Eki Bat eta Eki Bi EIFVak jartzea aurreikusten den lurzatian “hostozabal erorkorren landaketa gazteek” osatutako formazioa dago (EUNIS G5.72 kodea). Ingurumen dokumentuak ez du formazio hori deskribatzen, eta plan bereziak ahalbidetzen duen instalazioen garapenaren ondorioz eragina jasango du (2,55 ha inguruko azalera). NOKAZk 2024an adierazi zuen bezala, funtsezkoa da formazio hori behar bezala baloratzea prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurri egokiak ezarri ahal izateko. Horregatik, ingurumen dokumentu estrategikoa alderdi horri dagokionez berrikusi behar da.

Proposatutako neurriei dagokienez, proiektuaren ingurumen inpaktuaren azterketan jasotakoak errepikatzen dira. Desberdintasun bakarra da han proposatutako perimetro pantailan 1.479 zuhaixka ale landatzea aurreikusten zela, eta ingurumen dokumentu estrategikoan 1.912 zuhaixka ale aipatzen direla. Hala ere, pantailak luzera, zabalera eta landaketa dentsitate bera izaten jarraitzen du. Horrenbestez, proiektuaren mailan jada nabarmendu ziren eta sustatzailearen planteamenduan zuzendu behar diren alderdi berak planteatzen dira berriro, bai hirigintza plangintzaren mailan, bai proiektuaren mailan:

1. Adierazi den bezala, garapen fasean dauden landaketen 2,55 ha ingururi eragiten zaie, eta, horren ondorioz, eskualdean oraindik baso bokazioa duten eremu urrietako bat desagerrarazten da. Konpentsazio neurriak hartu behar dira, natura ondarearen galera garbirik ez dela gertatzen bermatzeko. Eragindako formazio mota kontuan hartuta, konpentsazioa 1:1 proportzioan egin ahal izango litzateke (desagerrarazitakoa : leheneratutakoa). Nolanahi ere, alderdi hori eremuaren azterketa xehatu baten bidez egiaztatu beharko da, eta azterketa horrek eremuaren kontserbazio egoeraren deskribapena jaso beharko du. Konpentsazio neurriak zehazteko, konpentsazio landaketa horiek egingo diren eremuak identifikatu beharko dira, eta landaketarako proposatutako metodologia zehaztu beharko da (zer espezie erabiliko den, landaketa esparrua, mantentze lanak eta abar). Alderdi horiek guztiak ingurumena leheneratzeko proiektu espezifiko batean jaso beharko dira, eta proiektu hori eguzki instalazio fotovoltaiako proiektuari lotu beharko zaio alderdi guztietan, aurrekontuan barne. Halaber, beharrezkotzat jotzen da ingurumena leheneratzeko proiektu hori Arabako Foru Aldundiak baliozkotzea (Natura Ondarearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zerbitzuak). Bestalde, plan bereziak dokumentu hori egitea nahitaezkoa dela jaso beharko du.

2. Hesietan zuhaixka pantaila bat jartzea proposatzea neurri egokitzat jotzen da. Hala ere, espezieen hautaketa berrikusi egin behar da, proposatutako espezieak ez baitira zonaldekoak. Eremuko balizko landarediari dagozkion espezieak hautatu behar dira (harizti eutrofo atlantikoaren seriea eta erkamezti subkantauriarraren seriea). Era berean, ereintzarako proposatutako espezie nahasketa berrikusi behar da, eremuko balizko landaredira egokitzeko.

3. Hesitutako eremuaren barruan, bertako belar eta zurezko espezieen ereintzan oinarritutako leheneratzea egitea gomendatzen da (plaka fotovoltaikeen altuerarekin bateragarriak izan daitezkeen zuhaixka espezieak barne), eta, zuhaixka horiek plaka fotovoltaikeen funtzionamendua oztopatzen ez duten eremuetan, erkamezti subkantauriarraren serieko zuhaixka espezieekin landaketak egitea. Plan berezia plangintza tresna bat denez, eta xehetasun mailako alderdiak jasotzen ez baditu ere, adierazitako neurriak nahitaez hartu behar direla ezarri beharko luke (ingurumena leheneratzeko proiektua egitea eta abar), eta haren ezaugarri nagusiak deskribatu beharko lituzke (landaketaren metodologia, landaketetan eta ereintzan erabiliko diren espezieak, berme aldia (3 urtekoa ezartzea gomendatzen da) eta abar).

- Fauna. Faunari dagokionez, landarediaren eta habitaten kasuan bezala, ingurumen dokumentu estrategikoak proiektuaren ingurumen inpaktuaren azterketako edukiak errepikatzen ditu atal guztietan (inbentarioa, inpaktuak, neurriak eta abar). Oraingoan ere ez da inolako egokitzapenik egin, ez aztertzen den tresna motaren arabera, ezta NOKAZk 2024ko abenduko txostenean nabarmendutako alderdiak zuzentzeko ere. Horregatik, proiektuaren mailan dagoeneko egindako oharra berresten dira. Ingurumen dokumentu estrategikoak fauna estatu mailan aztertzen du, eta MITERDen lauki sareak hartzen ditu erreferentziazat, proiektuek faunan izan ditzaketen inpaktuak baloratzeko. Testuinguru horretan, aipatzen da (ingurumen dokumentuaren 6.3.1.6 apartatuan) proiektuek zuzenean gehien eragin dezaketen bi espezieetako bat egon daitekeela; hain zuzen ere, mirotz urdina (*Circus pygargus*), zeina KBEKn kaltebera gisa katalogatuta baitago eta Arabako Lautadako laborantza soroetan maiz egiten baitu habia. Hala ere, ez da aipatzen mirotz zuria (*Circus cyaneus*) ere egon daitekeela, KBEKn interes berezikotzat katalogatutako espeziearena, zeinaren populazioak nabarmen egin baitu behera Araban eta arreta berezia behar baitu. Mirotz zuriari bereziki eragin diezaioke EKI BAT eta EKI BI EIFVen zuhaixka basoko eremuan aurreikusitako jarduketek. Funtsezkoa da jarduketa eremuetan alde aurretiko prospekzioak egitea, aipatutako bi espezieak eta/edo interesgarriak izan daitezkeen beste batzuk dauden ala ez egiaztatzeko, eta, horrela, faunan inpaktu esanguratsurik ez eragiteko behar diren neurriak hartzen direla bermatzeko. Komenigarria litzateke prospekzio horien diseinua eta emaitzak Arabako Foru Aldundiko zerbitzuek egiaztatzea. Plan bereziak prospekzio horiek egitea nahitaezkoa dela jaso behar du, nahiz eta haien metodologia proiektura bidal dezakeen.

Bestalde, ingurumen dokumentu estrategikoak adierazten du hainbat azpiegitura egoteak, hala nola errepideak, linea elektrikoak edo dagoeneko proiektatutako beste instalazio batzuk, eremuaren antropizazio handia eragiten duela, eta, ondorioz, fauna orokor gutxiago egotea. Horregatik, faunaren gaineko inpaktu handiena metatze edo sinergia motakoa dela uste du. Gai hori sakonago aztertuko da txosten honen aurreragoko apartatu batean.

Azkenik, modulu fotovoltaikeok tratamendu kimiko anti-islazaille bat izan beharko dute akabera gisa. Tratamendu horrek, argiaren isla minimizatu edo saihestuko du, baita ilargi beteiko gauetan ere, uretako hegaztientzako dei efektua saihesteko eta landarearen eragin bisuala minimizatzen. Plan bereziak alderdi hori jaso beharko du bere araudian, EIFVen garapenerako baldintza gisa.

- Paisaia. Ingurumen dokumentu estrategikoaren edukiak proiektuaren ingurumen inpaktuaren azterketako (IIAz) edukien berdinak dira paisaiari dagokionez. Inpaktua neurritzotzat jotzen da, instalazioen perimetroko itxituren inguruan zuhaixkez osatutako hesi berdea ezarriko dela kontuan hartuta. Hurbilen dauden herriak baino ez dira aztertu. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren 2021eko "Parque fotovoltaikeen ingurumen inpaktuko ikerketen edukia. Ingurumen azterketak egiteko gida autonomikoa" dokumentuak ezartzen du ikusgaitasun azterketak parke fotovoltaiкотik 5 km-ko erradioan dauden herrigune guztiak hartu behar dituela barnean (panelak, bideak, linea elektrikoak eta azpiestazioak barne).

Azkenik, aurreko paragrafoan eta metatze eta sinergia ondorioei buruzko apartatuan adierazitakoaz gain, Arabako Erdialdeko Paisaia Katalogoaren zehaztapenekiko bateragarritasuna aztertu beharko da, eta, hala badagokio, eragingo diren paisaiak kontserbatzea edo hobetzea bermatuko duten neurriak proposatu beharko dira.

- Metatze eta sinergia ondorioak. Aurreko kasuetan bezala, ingurumen dokumentu estrategikoak berriro jasotzen ditu (6.3.4 apartatuan) proiektuaren ingurumen inpaktuaren azterketako (IIAz) edukiak, metatze eta sinergia ondorioen analisiari dagokionez. Ondorioz, berriro jasotzen dira DPNACCK 2024ko abenduan emandako txostenean sustatzaileari inpaktu sinergikoen eta metatzaileen analisia egiteko adierazitako alderdiak: Inpaktu sinergikoen eta metatzaileen analisia berrikusi beharko da, behar bezala garatzeko. Horretarako, kontuan hartu beharko dira aipatutako ekimenak, bai ingurunerik hurbilenean (5 km baino erradio txikiagoan), bai MITER-Dek (10-15 km) eta Eusko Jaurlaritzak (15 km) gomendatutako azterketa eremuan. Nolanahi ere, aztertutako lurralde eremua justifikatu beharko da.

Analisiak honako alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan: faunari dagokionez, habitataren aldaketa orokorra eta nekazaritza inguruneari lotutako hegaztien gaineko eragina, aurretik proiektatutako jarduketek eragingo dutenari gehitzen zaion lurralde okupazioaren ondorioz, bai eta metatutako hesi efektua ere; paisaiari dagokionez, inpaktu sinergikoa eta metatzailea.

Ingurumen dokumentu estrategikoak ez ditu aztertzen inpaktu sinergikoak eta metatzaileak eskatutako moduan. Gainera, ondorio horietarako neurri zuzentzaile espezifikoak behar direla adierazten badu ere, ez du zehazten zein diren neurri horiek, sortutako inpaktu sinergikoa eta metatzailea kontuan hartuta.

Bestalde, natura ondarearekin zuzenean lotutako alderdiez harago, ezinbestekoa litzateke balio estrategiko handiko lurzoruen galera metatua ere baloratzea; izan ere, Arabako Lautadan galera horrek dimentsio kritikoa har dezake. Aldagai horri dagokionez, ingurumen dokumentu estrategikoak ez du kontuan hartzen inpaktu metatzaileen analisia. Bestalde, dokumentu horrek nekazaritza lurzoruak okupatzeagatik konpentsazio neurri bat proposatzen du: "Nekazaritzako lurrrak errentan hartzea aurreikusten da, nekazaritza eta ingurumen kudeaketaren xede izango diren estepako espezieak ereiteko." Neurri horren arabera, itxituraren pareko azalera batean (5,85 ha) "inguruko nekazariarekin hitzarmenak egitea proposatzen da, estepako habitatak ezartzeko lursailak lortzeko." Neurri horrek, neurri batean, hainbat espezieren habitatak zaintzeko mesedegarria izan daitekeela ematen badu ere, baditu zenbait eragozpen. Alde batetik, Arabako Lautadan ez dago estepako espezierik, berez; egokiagoa litzateke nekazaritza inguruneari lotutako espezieez hitz egitea. Bestetik, ez da zehazten nola konpentsatu nahi den EIFVek okupatutako nekazaritza lurra -bereziki Arratzua EIFVak okupatutako balio estrategiko handiko lurra-; izan ere, badirudi neurria beste nekazaritza lurzoru batzuetan aplikatzea proposatzen dela, baina lurzoru horiek zehaztu gabe daude. Laburbilduz, neurri orokor samarra da, eta, gainera, ez du jorratzen sektorearentzat balio estrategiko handia duten lurzoruak okupatzeagatik konpentsazioa. Adierazi den bezala, gai hori kritikotzat jotzen da hainbat arrazoiengatik, bai nekazaritzaren sektorearen ikuspegitik (eragin sozioekonomikoa eta sektorearentzat estrategikoak diren lurzoruen galera), bai natura ondarearen ikuspegitik ere, nekazaritza inguruneari lotutako habitatetan eta espezieetan eragina duelako.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du proiektuaren eremuan ez dagoela kultura ondarearen gaineko eraginik.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak txostena eman du, eta bertan honako ohar hauek egiten ditu EKI BAT, EKI BI eta ARRATZUA eguzki instalazio fotovoltaiakoei buruzko plan bereziari dagokionez:

- Energia berriztagarrien plangintzarekiko bateragarritasuna. Inguruan energia berriztagarrien LPSn eskala handiko instalazio fotovoltaiakoak ezartzeko hautatutako kokapen eremu (HKE) gisa mugatutako eremuak, eta Arabako Erdialdeko LPPn instalazio fotovoltaiakoetarako lehentasunezko kokapen eremu (LKE) gisa mugatutako hainbat eremu daudenez, ingurumen

dokumentuak justifikatu beharko luke zergatik ez diren hautatu lurralde plangintzaren arabera egokientzat jotzen diren eremu horietako lurzatiak. Bestalde, plan bereziaren eremuaren zati bat instalazio fotovoltaiakoak ezartzeko gaitasun oso txikiko eremuekin bat dator. Behin-behinean onetsitako Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSren dokumentuaren arabera, instalazio mota horiek debekatuta egongo lirarteke eremu horietan.

- Lurzorua eta nekazaritza erabilerak zaintzea. Proiektuan aztertutako kokapen aukerak lurzoru urbanizaezinean (LU) daude kasu guztietan. Sektorearen ikuspegitik, funtsezkotzat jotzen da lurzoru urbanizaezinetik kanpo edo degradatutako eremuetan kokapenak baloratzea eta lehenestea, bereziki nekazaritza lurzoruei eta haiei lotutako nekazaritza ustategiei eragitea saihesteko. Are gehiago, instalazio horien ugaritze berriaren ondoriozko eragin orokorra aztertuko duen behin betiko plangintza orokorrik ez dagoela kontuan hartuta, eta inguruan estalki azalera handiak dituzten eremuak badaudela, eguzki panelak horietan jar baitaitezke.

- Nekazaritza lurzoruaren okupazioa eta sektorearen gaineko eragina. Ezinbestekoa da ingurumen dokumentua berrikustea eta nekazaritzaren sektorearen gaineko eraginari buruzko azterketa zorrotza egitea. Horretarako, oinarri gisa hartu behar dira bai nekazaritza lurzoruaren okupazioa, bai ukitutako nekazaritza ustategietan eragindako inpaktua. Gainera, behin eta berriz adierazi den bezala, instalazio mota horiek sektorean duten eraginak sortzen duen kezka estu lotuta dago lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak neurri handian hedatzearen ondorioz aurreikusten diren inpaktu metatzaileekin; bereziki, zenbait eremutan, Arabako Lautadan gertatzen ari den bezala. Ingurumen dokumentuan jasotzen denez, plan bereziaren eremua izapidetzen ari den “Vitoria-Gasteiz 1. orubea” instalazio fotovoltaiakoaren mugakidea da, eta “Vitoria-Gasteiz 2. orubea” instalazio fotovoltaiakotik gertu dago.

Ingurumen dokumentuak apartatu bat jasotzen du (6.3.4 apartatua) inpaktu sinergikoei buruz. Apartatu horri dagokionez, beharrezkotzat jotzen da honako ohar hauek egitea, hura berrikusteko beharra justifikatzen baitute: - Inpaktu metatzailea eta sinergikoa plan berezia garatzean eragina izango duten ingurumen aldagai guztiei dagokienez aztertu behar da; horien artean dago lurzoruaren eta nekazaritza erabileren gaineko eragina; - Ez da ezagutzen ingurumen dokumentuan zer azterketa eremu hartu den kontuan, baina agerikoa da (6.3.4 apartatuan jasotako irudiaren arabera) ez dela iristen Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak parke fotovoltaiakoen ingurumen inpaktuaren azterketen edukiri buruz argitaratutako gidan gomendatutako 15 km-ko erradiora.

Amaitzeko, ingurumen dokumentuak eragindako balio agrologiko handiko lurzoruari buruzko konpentsazio neurriak proposatzen ditu (9.3 apartatua). Deigarria da balio agrologiko handiko lurzoruari buruzko konpentsazio neurrien izenburupean fauna habitatak lehengoratzera bideratutako neurriak proposatzea, lurzoruaren eta nekazaritza erabileren galerari lotutako neurriak proposatu beharrean. Apartatu hori sakon berrikusi beharko da, nahitaez egin beharreko nekazaritzaren sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta, txosten honetan zehar adierazitako irizpideei jarraikiz. Horretarako, oinarri gisa hartu beharko dira bai nekazaritza lurzoruaren okupazioa, bai eragindako nekazaritza ustategietan eragindako inpaktua, bai eta inguruan energia berriztagarriak hedatzeari lotutako inpaktu metatzailea eta sinergikoa ere.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) txostena eman du. Bertan ondorioztatzen du, Arratzua-Ubarrundia udalerriko EKI BAT, EKI BI eta ARRATZUA eguzki instalazio fotovoltaiakoei buruzko plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuari dagokionez bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, eta ingurumen organoak behar adinako irizpide elementuak izan ditzan, agentzia horren iritziz ebaluazioaren xede den plan bereziaren proposamenak, hasiera batean, bateragarriak direla inguruko eta eraginpeko azaleko nahiz lurpeko uren egoera ona mantentzearekin. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da honako ohar hauek kontuan hartzea:

1. Lurzorura eta jabari publiko hidraulikora egiten diren isurketei dagokienez, bai obren fasean, bai, halakorik balego, eguzki instalazioaren funtzionamendu fasean, gogorarazten da alde zuzenetik isurketa baimena beharko dela; baimen horren esparruan ezarriko dira, hala bada, gogoratzeko, dagozkion baldintzak.

2. Era berean, gogorarazten da eraikuntza proiektuak ura hartzea aurreikusten badu, aldi baterakoa izan edo ez, aldezturik Ebroko Konfederazio Hidrografikoari nahitaezko emakida edo aldi baterako baimena eskatu beharko zaiola.

— Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (EKH) txostena eman du, eta bertan honako ondorio hauek jasotzen ditu:

Plan berezian aurreikus daitezkeen ondorioak bateragarritzat jotzen dira ur sistemari dago-kionez; horrenbestez, aldeko txostena ematen da, betiere aurreikutzeko ingurumen dokumenta-zioan jasotako neurriak betetzen badira, bai eta jarduketaren eremuko ur ingurunea -azaleko urak zein lurpekoak- babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen badira, haren kutsadura edo degradazioa saihestuz, eremuko dinamika hidrologikoa ez dela nabarmen aldatuko ber-matuz, drainatze sare egokia mantenduz eta eragindako lur guztiak lehengoratuz. Une oro bermatu beharko da azaleko eta lurpeko uren kalitatea.

Gainera, sustatzaileari ohartarazten zaio aurreikusitako jarduketek indarrean dagoen uren arloko legeria bete beharko dutela, eta, bereziki, jabari publiko hidraulikoan eta haren zortasun eta polizia eremuetan obrak edo lanak egiteko, aldezturik arroko erakundearen adminis-trazio baimena beharko dela, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren, Uraren Legearen testu bategina onesten duenaren, eta ondorengo aldaketen arabera.

— Arratzua-Ubarrundiako Udalak txostena eman du, eta, plan bereziak eragindako lurzatie-n kalifikazioak eta baldintzak deskribatu ondoren, honako ondorio hau ateratu du:

1. Proiektuak txosten honetan aipatutako araudi osoa bete beharko du.

2. Gainera, proiektuak, obra lizentzia eman edo obrei ekin aurretik, eskumenei eragiten dieten administrazio edo zerbitzuen baimenak lortu beharko ditu (ikus txostena).

3. Proiektuak azpiegitura edo instalazioa onura edo interes publikokotzat jotzeko adieraz-pena lortu beharko du, J.15 -babes bereziko eremua nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal balioagatik-, J.24 -baso interesagatik babestutako eremua- eta J.25 -nekazaritza eta abeltzaintza interesagatik babestutako eremua- gisa kalifikatutako eremuetan hala eskatzen delako.

4. Bestalde, proiektuak lurzoru urbanizazinean 5.000 m² baino gehiagoko azalera hartzen duenez, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigint-zari buruzkoa, garatzeko, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan, presako neurriei buruzkoan, 4.3 arti-kuluan ezarritakoaren arabera dagokion plan berezia onesteko izapidea hasi denez, foru al-dundiari dagokion plan berezi horren behin betiko onespenezkin batera, interes publikoaren adierazpen zehatza ere egintzat joko da, baldin eta aurrez jendaurrean jarri bada.

5. Proiektuari dagokionez, adierazten da azpiegituraren konexio edo ebakuazio lineak ahal den neurrian lurperatuta egin behar direla, bide publikoetatik, bidezidorretatik edo lurzatie-n arteko bideetatik. Lurzati pribatuei eragiten badiete, berriz, lurzatie-n mugetatik edo ahalik eta eragin txikiarekin sortzen duten lekuetatik igaro beharko dute, lurzatie-n erditik igarotzea saihestuz, haien egungo eta etorkizuneko erabilera eta aprobetxamendua baldintzatu ez ditzaten.

— Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi duenez, proiektu-gauzatzeko nahitaezkoa da aldezturik azterlan arkeologikoa xehatua egitea, Euskal Kul-tura Ondareari buruzko 6/2019 Legeak 65. artikuluan ezarritakoaren arabera. Azterlan horrek, gutxienez, jarduketaren hauek jasotzeko beharko ditu:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren mende dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroarekin aurreikusitako trazadurak eta obrak alderatzea, ondarearen gaineko balizko eraginak aurretiaz identifikatzeko; izan ere, babestutako ondasunen mugaketetan es-kumena duen organoa da.

- Ondoren, lurzoruaren ikusizko prospekzioa egitea, inbentario ofizialetan jasota ez dauden interes arkeologikoko beste elementu batzuk egon daitezkeen identifikatzeko. Jarduketaren horren berri eman beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari.

- Obrek eragindako ondare ondasun bakoitzean izan lezaketen inpaktuaren azterketa eta balorazio espezifikoak.

- Obrek eragindako aztarnategi bakoitzerako neurri zuzentzaile espezifikoaren proposamena.

Neurri horiek Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak baliozkotu eta baimendu beharko ditu.

— Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazi duenez, proposatutako kokalekuetan zuzenean eraginpean gera daitezkeen kultura ondasunak ez badago ere, zerbitzu horren iritziz, proposatutako eguzki instalazioek inguruneak ondare eta kultura balioak kaltetzen dituzte. Horrenbestez, paisaia integratzeko irizpideak txertatuko dituzten bestelako aukerak bilatu beharko lirateke, proiektua, eragindako lurraldearen eskalara eta ezaugarrietara hobeto egokitzeko.

— Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txostena eman du, eta honako ondorio hauek adierazi ditu:

Alde batetik, Nekazaritza arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloaren (NAAEP) emaitza kontuan hartuta, Arratzua-Ubarrundiako udalerrian “Eki Bat”, “Eki Bi” eta “Arratzua” EIFVek, banaka hartuta, Nekazaritza eta Basogintzako LPSan nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal gisa sailkatutako lurzoruetan eragiten duten inpaktua bateragarritzat jotzen da. Bestalde, gaur egun hainbat instalazio fotovoltaikoren proiektu izapidetzen ari dira Vitoria-Gasteizko azpies-tazio elektrikoaren inguruan. Horren ondorioz, eremu horretan nekazaritza lurzoruen galera handiagoa da. Hori dela eta, NAAEPn jasotako guztia kontuan hartuta, “Arratzua” EIFVa ez da erabilera onargarria, Arratzua-Ubarrundiako udalerrian eta haren inguruan Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren arabera nekazaritza, abeltzaintza eta landazabal, balio estrategiko handikoa, gisa sailkatutako lurzoruetan izango duen eraginagatik.

Aurreko guztia kontuan hartuta, “Arratzua” EIFVak Arratzua-Ubarrundiako udalerrian eragingo duen nekazaritza lurzoruen galeragatik, izapidetzen ari diren gainerako instalazioekin batera metatze ondorioa sortuko baitu, eta Nekazaritza eta Elikadura Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak 12. artikuluan ezarritako helburuarekin bat etorritik -hau da, “nekazaritza lurzoruen nekazaritza jarduerari lotutako erabilera jarraitua eta egokia sustatzea, gizartearen eskakizunekin bat etorritik”, bai eta Euskadiko 2030 Energia Estrategian jasotako gomendioarekin bat etorritik ere, zeinak energia proiektuetan balio agrologiko handiko lurzoruei ahalik eta eragin txikiena eragitea gomendatzen baitu, Nekazaritza Zuzendaritzak instalazio mota horiek nekazaritza lurzorutik kanpo kokatzeko aukerak zabaltea proposatzen du.

— Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak, foru aldundiak mendien arloan dituen esku-menak baliatuz, honako hau jakinarazten du:

Lehenengoa: “Arratzua” instalazio fotovoltaikoari dagokionez, zorrotz zaindu beharko da itxitura 1130_A katastro azpilurzatian kokatzea, eta 302-2 zenbakiko OPMtik kanpo uztea. Gainera, zuhaitzak moztu behar izanez gero, nahitaezko zuhaitzak mozteko administrazio baimena eduki beharko da.

Bigarrena: EKI BAT eta EKI BI instalazio fotovoltaikoei dagokienez, Mendi Zerbitzuaren iritziz, txosten honetan adierazitakoarekin bat etorritik, azpiegitura mota horiek ez lirateke baso lurzoruetan kokatu behar, lurzoru horien natura balioak iraunaraztea eta kontserbatzea bermatzeko.

Nolanahi ere, gogorarazten da Mendiei buruzko Legearen arabera, baso lurzoruen erabilera aldatzeak, interes orokorreko arazoak eragindakoa ez denean, salbuespenezko izaera izango duela, 18.4 artikuluan eta aplikatzekoa den ingurumen araudian xedatutakoa eragotzi gabe, eta baso arloko organo eskudunaren aldeko txostena beharko duela, bai eta, hala bada, gokia, mendiaren titularrarena ere.

Erabilera aldatzeko baimena zuhaitzak mozteko alde aurreko baimenari lotuta dago. Baimen hori Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren Mendi Zerbitzuari eskatu beharko zaio, mendien arloko organo eskuduna den aldetik, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Eremuko ingurumen balio nagusien deskribapena. Eremuko beste baldintzatzaile batzuk. Plan berezian aurreikus daitezkeen ingurumen ondorioak eta inpaktuen balorazioa

4.1. Plan bereziaren eremuko ingurumen balio nagusiak.

Aztergai den plan bereziaren ingurunean eta eragin eremuan dauden ingurumen babeseko figura nagusiak honako hauek dira:

— Natura 2000 Sareko naturagune babestuak (NGB): Eragin eremutik hurbilen dauden kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (HBBE):

- ES2110010 Zadorra ibaia KBE: EKI BI EIFVtik 580 metro ingurura dago, mendebaldera.
- ES2110011 Zadorra sistemako urtegiak KBE: EKI BI EIFVtik 3 km ingurura dago, ekialdera.
- ES2110014 KBE/HBBEa eta Salburua Ramsar hezegunea: EKI BI EIFVtik 3,8 km ingurura dago, hego mendebaldera.

— Euskadiko korridore ekologikoen sarea. EKI BAT eta EKI BI EIFVen eremua zeharkatzen duen lotura korridore hau identifikatu da:

- S1 Salburua - C20 Arzubiagako baso uhartea lotura korridorea (ikus 10. irudia).

— Europar Batasunaren Intereseko (BIH) eta Lehentasunezko Habitata (*) (Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeko). Eragindako eremuaren mugakide diren lurzatietan habitat mota hauek identifikatu dira:

- BIH 9240: *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* espezieetako iberiar hariztiak, 302-2 zenbakiko Larragana onura publikoko mendian.

- BIH 4090: txilardi kaltzikola otadiek, lur margatsuetan, 302-2 zenbakiko Larragana onura publikoko mendian.

- BIH 6210*: Mesobromion motako lastonadiak eta larreak.

— EUNIS habitata (2019):

01-08-03-1162 lurzatia (EKI BAT eta EKI BI EIFVak): lurzati horretan "hostozabal erorkorren landaketa gazteak" identifikatu dira. Oharra. Habitat horiek kartografia espezifikoa ageri ez badira ere, planak eragin dezakeen eremuaren zati handi batean aipatutako hiru habitat motak garatuta daudela egiaztatu da. 9240, 4090 eta 6210*, eta, nolabehere ere, argi ikusten da *Quercus faginea* espezieko erkamezti bateranzko bilakaera ona dagoela

- 01-08-03-1130 lurzatia (ARRATZUA EIFVa): lurzati horretan laborantza intentsibo monoespezifikoa identifikatu dira.

4.2. Eremuko hirigintza baldintzatzaileak.

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO).

Plan bereziak eragin dezakeen eremuaren hirigintza kalifikazioari dagokionez, lurzatiak lurzoru urbanizaezinean daude, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalaren HAPOren arabera honako kalifikazio hauek dituzte: 01-08-03-1130 lurzatia (Arratzua EIFVa): J.2.5 da gehienbat, eta J.1.5 eta J.2.4 eremuak ere baditu; eta 01-08-03-1162 lurzatia (EKI BAT eta EKI BI EIFVak): J.1.3 da gehienbat, eta J.1.5, J.2.3 eta J.2.5 eremuak ere baditu. Eremu horiek honako kalifikazio hauei dagozkie:


— J.2.5 Nekazaritza eta abeltzaintza interesagatik babestutako eremuak: "Nekazaritzarako erabilera gaitasun handia duten lurzoruak dira, lurralde plan partzialek babestutako eremuek baino gaitasun txikiagoa izan arren, udal mailan babestu beharrekoak direnak."

— J.1.3 Ingurumena hobetzeko babes bereziko A eremuak: “Baso, sasi eta lurzoru marjinaletako eremu degradatueta eremuetan aplikatzen da, horiek gradu maila hobeetarako jasan bilakaera onuragarritzat jotzen da, eta lurraldeetako plan partzialen ondorioz, lurraldeko babesaren barruko espazioen barruan daude, baina gainontzeko babes bereziko J.1 zonetatik kanpo”.

— J.1.5 Nekazaritza eta abeltzaintzako interesagatik babes berezia duten eremuak: “J.1 gainerako eremuetan sartzen ez diren laborantza lurak hartzen dituzte barne. Arabako lurraldean nekazaritzarako erabilera gaitasun handiena dutelako babesten dituzte lurralde plan partzialek”.

— J.2.3 Ingurumena hobetzeko zaindutako B eremuak: “J.1 zonetan ez dauden baso, sasi eta lurzoru marjinaletako esparru degradatuak dira, hain zuzen ere beste zona babestu edo zaindu batzuen barruan edo aldamenean daudelako udal planeamenduan hobetu beharrezkotzat jotzen direnak”.

— J.2.4 Baso interesagatik zaindutako eremuak: “J.1 eremuetan sartzen ez diren baso eremu guztiak hartzen ditu barne, eta, oro har, ehuneko 20tik gorako malda dutenak; udal plangintzaren arabera, interesekoa da horiek zaintzea”.



7. irudia. 1.1 planoa, 05/10 orria. Udal barrutiaren kalifikazioa. Azpiegitura orokorrak eta gaineratutako baldintza gehigarriak (Arratzua-Ubarrundiako HAPO)

Lurzatiek gaineratutako baldintza hauek dituzte:

— Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberak diren eremuak (01-08-03-1162 lurzatia: 5. maila, kalteberatasun oso handia; eta 01/08/03/1130 lurzatia: 4. maila, kalteberatasun handia).

Gainera, lurzatiek gaineratutako baldintza gehigarri hauek dituzte:

- Landabideen babes eremua.
- Bide komunikazioen babes eremua.
- Igarobide ekologikoen sarea.
- Batasunaren intereseko habitatak eta/edo lehentasunezko intereseko habitatak.
- Aireontzien ustiapen zortasunak.

4.3. Lurralde antolamenduko eta sektorekako baldintzak.

— 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, Mendiarena. (ALHAO, 44. zk., 2007/04/13). Mendi publikoak:

— 01-08-03-1162 lurzatia (EKI BAT eta EKI BI EIFVak): katalogatu gabeko mendi publikoa da.

— 302-2 Larragana onura publikoko mendia: 01-08-03-1130 lurzatiarekin (ARRATZUA EIFVa) egiten du muga.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (LPS):

• ARRATZUA EIFVaren 01-08-03-1130 lurzatia balio estrategiko handiko eta trantsizioko landa paisaiako eremu gisa katalogatuta dago.

• EKI BAT eta EKI BI EIFVen 01-08-03-1162 lurzatia basoko eta baso urriko eremu gisa katalogatuta dago.

Kasu honetan, Nekazaritza eta Basogintzako LPSak ezartzen du balio estrategiko handiko azpikategorian aurreikusitako edozein proiektutan “nekazaritzaren arloan eskumena duen foru organoak txostena egin beharko duela behin betiko onetsi aurretik”. Horretarako, nekazaritzaren arloan eskumena duten administrazio organoek ezartzen dituzten oharrek hartu beharko dira kontuan. Horri dagokionez, AFAko Nekazaritza Zuzendaritzak ingurumen ebaluazioaren prozedura honetan ukitutako administrazio publikoei egindako kontsulten esparruan emandako txostenaren arabera, ARRATZUA EIFVaren kasuan ez litzateke onargarria izango udal mailan balio estrategiko handikotzat jotako lurzorua okupatzea, inguruan proiektuak pilatzen direlako.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra eta mediterranea) (449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa behin betiko onesten duena). Azaleko uren hidrografia:

• Basotxo ibai, 2. Hierarkia, 13.230 IDa: EKI BAT eta EKI BI EIFVen lurpeko ebakuazio lineak ibai hori zeharkatzen du.

• Zubiate ibai, 3. hierarkia, 13.256 IDa: proiektatutako hiru EIFVen lurpeko ebakuazio lineak ibai hori zeharkatzen dute.

— Arabako Erdialdeko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (16/2026 Dekretua, otsailaren 17koa, Arabako Erdialdeko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onesten duena; EHAAren 42. zenbakian argitaratua, 2026ko martxoaren 3an).

LPP horren 11. artikuluan, Ingurune fisikoaren antolamendua izenekoan, lurraldea espazio homogeneotan zonakatzen duten antolamendu kategoriak eta gaineratutako baldintzak ezartzen dira, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 3.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horrela, Arabako Erdialdeko lurzoru urbanizaezinerako sei antolamendu kategoria ezartzen dira; horien artean daude “babes berezia” eta “ingurumena hobetzea” kategoriak.

II. eranskinean “Lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarriak ezartzeko eta kokatzeko irizpide orokorrak, Energia Berriztagarrien LPS indarrean jarri arte” izenekoan, ezartzen da aurreikusitako instalazioak, guztira 5,85 hektarea hartzen dituztenak (3,09 ha EKI BAT eta EKI BI EIFVenak, eta 2,76 ha ARRATZUA EIFVarenak), eskala ertainekoak direla, Arabako Erdialdeko eremu funtzionalean kokatzen direlako eta 10 hektareatik beherako baina 2 hektareatik gorako azalera hartzen dutelako. Gainera, II. eranskin horretan honako hau ezartzen da:

3. Udal plangintzak lurzoru urbanizaezinean instalazio eolikoak eta fotovoltaikoak erabilera arautuko du, LPP honen eta LAGen arabarako lurzoru kategorizatzea kontuan hartuta, “izaera linealekoak ez diren B motako zerbitzu instalazio teknikoak” erabilera gisa, honako zehaztapen hauekin:


a) Ingurumena babesteko figura onetsirik ez duten babes bereziko kategorietan, erabilera baimendu bati lotutako autokontsumorako eskala txikiko instalazioak ez diren energia berriztagarrien instalazioak debekatutako erabilera izango dira.

b) Mendiko larreen kategorian, energia berriztagarrien instalazioak debekatutako erabilera izango dira.

c) Basoko kategorian eta nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko balio estrategiko handiko azpikategorian, eskala handiko energia fotovoltaiako instalazioak debekatutako erabilera izango dira.

Lehen adierazi den bezala, plan bereziaren esparrua, EKI BAT eta EKI BI EIFVei dagokienez, ia osorik ingurumena hobetzeko babes bereziko eremu batean edo babes bereziko edo zaindutako beste eremu batzuetan dago (J.1.3, J.1.5 eta J.2.3).

ARRATZUA EIFVaren dagokionez, nagusiki EAEko Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren arabera “balio estrategiko handiko” lurzorua ukitzen du. Hala ere, haren eskala dela eta onargarria izan litekeen arren, baso eremutik 25 metroko atzerapena ezarri behar da, sute arriskuagatik, oso eremu hauskorra baita; horren ondorioz, instalazioa ezartzeko aukera nabarmen mugatzen da.



8. irudia. ARRATZUA EIFVaren irudia, baso suteak saihesteko 25 metroko atzerapenarekin

Nolanahi ere, inguruan izapidetze aurreratuan dauden beste eguzki instalazio fotovoltaiako batzuekiko eragin metagarriak eta sinergikoak aztertu behar dira. Horretarako, funtsezkoa da Nekazaritzaren Arloko Ebaluazio Sektorialaren Protokoloaren (NAEP) emaitza eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak aurkeztutako alegazio txostena kontuan hartzea; izan ere, txosten horren ondorioa da “balio estrategiko handiko” lurzoruan parkea ezartzea ez dela onargarria.

4.4. Plan berezian aurreikus daitezkeen ingurumen ondorioak eta inpaktuen balorazioa.

Aurkeztutako ingurumen dokumentuan plan bereziak eta hura garatzean egingo diren jarduketek eragin ditzaketen ingurumen ondorioen azterketa eta balorazioa egiten dira, obren fasea barne. Jarraian, ukitutako ingurumen faktorearen arabera adierazgarrienak jotzen diren inpaktuak aztertzen dira.

Lurzoruen okupazioaren eta erabileren aldaketaren gaineko ondorioak, eta landarediaren gainekoak.

Eraginik handiena 01-08-03-1162 lurzatian gertatuko da. Lurzati hori katalogatu gabeko mendi publikoa da, eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren basoko eta baso mehatz kategoriako lurzoruak ditu (mendia gainkategoria). Plan berezia onetsi eta EKI BAT eta EKI BI EIFVak ezartzen direnean, lurzoru horren erabilera basokoa izatetik industrial izatera igaroko da. Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak ukitutako administrazio publikoei egindako kontsulten fasean emandako txostenean azaltzen den bezala, "mendi baten baso erabilera aldatzeak, interes orokorreko arrazoiek eragiten ez dutenean, eta 18.4 artikuluan eta aplikatu beharreko ingurumen araudian xedatutakoa alde batera utzi gabe, salbuespenezko izaera izango du, eta basoen arloan eskumena duen organoaren aldeko txostena eta, hala badagokio, mendiaren titularraren adostasuna beharko ditu." Hori guztia aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera, hain zuzen ere, Mendiei buruzko azaroaren 31ko 43/2003 Legearen 40.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Mendi Zerbitzuaren txosten horretan azaltzen denez, instalazio horietarako hautatutako kokapena bat dator, osorik, Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren basoko eta baso - mendi mehatzeko kategorietako lurzoruarekin (mendia gainkategoria barruan). Era berean, egiaztatu da ukitutako azalerak (1162_B azpilurzatia) baso izaera izan duela aireko ortoargazkien erregistroak daudenetik. Mendi Zerbitzuaren iritziz, "azalera horietan ez lirateke mota horretako azpiegiturak kokatu behar, haien natura balioen iraupena eta kontserbazioa bermatzeko."

Izan ere, EKI BAT eta EKI BI EIFVak kokatuko diren lurzatia (3,09 ha hartuko dituzte) baso lurzati bat da, hostozabalen landaketa berria duena. Bertan, erkametzek modu homogeenokian estaltzen dute lurzatia, eta zuhaixken eta sastrakadiaren geruza batek laguntzen die; horrek basoa birsortzeko lehen etapa eratzen du. Plan berezi honek eragin dezakeen eremu osoak balio handia du bertan garatzen den landarediari dagokionez, eta, landa azterketan egiaztatu denez, Batasunaren intereseko habitatak garatu dira bertan. Ikus hurrengo argazkia:



9. irudia. EKI BAT eta EKI BI EIFVen Plan Bereziaren okupazio eremua

Uste da EKI BAT eta EKI BI EIFVak kokatuko liratekeen baso zerrendak bermatzen duela Larragana OPMren (ARRATZUA EIFVaren inguruan dagoena) eta mendi horren hego mendebaldean dauden eremuen arteko konektibitatea. Zehazki, EKI BAT eta EKI BI EIFVak kokatzen diren katalogatu gabeko mendi publikoarekin lotzen du, eta, ondoren, Zadorra ibaiaren KBEa-rekin konektatzen da. Horregatik guztiagatik, landaredian eta konektibitate ekologikoan izango duen eragina dela eta, plan berezia onesteak eta EKI BAT eta EKI BI instalazioak ezartzeak oso inpaktu handia izango lukeela jotzen da.


ARRATZUA EIFVaren okupazio eremuari dagokionez (2,76 ha), eragin nagusia balio estrategiko handikotzat katalogatutako egungo lurzoruen erabilera aldatzea izango da; lur hori ez da gehiago landuko, eta, aurkeztutako ingurumen dokumentuan jasotzen denez, eguzki instalazio fotovoltaiakoak eta panelen azpiko nahiz panelik gabeko eremuetako landare estalkiak hartuko dute haren lekua. Kasu honetan, Nekazaritza eta Basogintzako LPSak ezartzen du balio estrategiko handiko azpikategorian aurreikusitako edozein proiektutan “nekazaritzaren arloan eskumena duen foru organoak txostena egin beharko duela behin betiko onetsi aurretik”. Horretarako, nekazaritzaren arloan eskumena duten administrazio organoek ezartzen dituzten oharra hartu beharko dira kontuan. Horretarako, berriro jo behar da NAEPre txostenera eta Nekazaritza Zuzendaritzak ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura honen esparruan emandako alegazio txostenera. Txosten horren ondorioa da udal mailan ez litzatekeela onargarria izango nekazaritzarako balio estrategiko handiko lurzoruan (EAEko Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren arabera) eragina izatea.

Adierazi behar da aurkeztutako ingurumen dokumentuan sustatzaileak neurri bat proposatzen duela Nekazaritza eta Basogintzako LPSean definitutako nekazaritza balio handiko lurzoruen okupazioa konpentsatzeko, nekazaritza eta ingurumen arloko estandarren arabera laborantza azalera baliokidea lortzeko. Horretarako, inguruko nekazariekin hitzarmenak eginez laborantza lurra errentan hartzea aurreikusten da. Lur horietan estepako habitatak ezartzeko espezieak ereingo dira, eta habitat horiek nekazaritza eta ingurumen arloko kudeaketaren xede izango dira. Neurri horretarako, hesitutako azalera osoa ezartzen da, hau da, 5,85 ha. Neurri hori gauzatzeko, “Estepako hegaztiak kontserbatzeko lugorrien kudeaketa eskuliburua” erabiliko da. Neurri horri dagokionez, adierazi behar da ez dagoela nekazaritzarako balio estrategiko handiko lurzoruan laborantza galtzea konpentsatzera bideratuta; aitzitik, estepako habitatak mantentzea du helburu, habitat horietan bizi den fauna babesteko.

Faunaren, habitaten zatikatzearen eta konektibitate ekologikoaren gaineko ondorioak.

Eguzki instalazio fotovoltaiakoak ezartzeak eremuan dagoen faunaren egungo habitatak zatikatuko ditu, eta hesi perimetralak nahiz instalazioek berek eragindako hesi efektua sortuko dute. Horregatik, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio neurriak hartu beharko dira, eremuko konektibitatea aldatu ez dadin.

Konektibitate ekologikoaren gaineko ondorioek garrantzi berezia dute EKI BAT eta EKI BI EIFVen eremuan; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Korridore Ekologikoen Sareko “S1 Salburua – C20 Arzubia uharte basoa lotura korridorearen” erdian kokatzen dira. Korridore Ekologikoen Sare horren egitura lotu beharreko gune nukleoen inguruan antolatzen da, eta lotura korridoreek konektatzeko elementu gisa jarduten dute. Kasu honetan, azpiegituraren zati bat zeharkatzen duen korridoreak Salburuako KBE/HBBEa eta Arabako Lautadako Harizti Uharteen KBEaren barruan dagoen Arzubiagako basotxo lotzen ditu, eta hura, era berean, Zadorra ibaiaren KBEa-rekin, zeina korridore sare bereko zatia baita, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala:



10. irudia. Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea: lotura korridorea (urdinez), Arzubiagako basotxo (berdez) eta Zadorra ibaiaren KBEa (arrosaz). EKI BAT EIFVa (laranjaz), EKI BI EIFVa (arrosaz), ARRATZUA EIFVa (gorriz) eta Vitoria-Gasteiz 1. ORUBEA EIFVa (horiz)


Uste da EKI BAT eta EKI BI EIFVek oso eragin handia izango dutela eremu faunan, ingurumen balio handiko egungo habitatak (birsortzen ari den baso landaredia) galtzeagatik eta zatikazteagatik, bai eta hesi perimetralak eta instalazioek berek eragindako hesi efektuagatik ere; izan ere, Euskadiko Korridore Ekologikoen Sareko lotura korridore gisa jarduten duen eremu batean kokatzen dira. Lehen azaldu den bezala, konektibitate ekologikoaren gaineko inpaktua kritikotzat edo onartezintzat jotzen da.

Paisaiaren gainean sortutako ondorioak eta beste instalazio fotovoltaiko batzuekiko ondorio metagarriak eta sinergikoak.

Proiektatutako eguzki instalazio fotovoltaikoak eraikitzeak paisaian sartze efektua eragingo luke nekazaritzako paisaia duen ingurune batean, bai hartzen duten hedaduragatik, bai landare estalkia galtzeagatik, bai inguruko ingurunearekin kontraste handia egiten duten industria instalazio horien ikusgaitasunagatik.

Aurkeztutako ingurumen dokumentuan Vitoria-Gasteiz 1. ORUBEA (mugakidea) eta Vitoria-Gasteiz 2. ORUBEA (hego ekialdera, 2.600 m ingurura) instalazio fotovoltaikoekiko ondorio sinergikoak aztertzen dira. Bi instalazio horiek ingurumen inpaktuaren adierazpena dute (2023ko irailaren 15eko ebazpenak, hurrenez hurren EHAAren 2023ko urriaren 31ko 208. zenbakian eta 2023ko urriaren 30eko 207. zenbakian argitaratuak), bai eta alde zuzeneko administrazio baimenak ere (2023ko azaroaren 30eko ebazpenak, hurrenez hurren EHAAren 2024ko urtarrilaren 15eko 11. zenbakian eta 2024ko urtarrilaren 11ko 8. zenbakian argitaratuak). Gainera, azterlan horretan eremuan dauden zenbait linea elektriko ere jaso dira, Vitoria azpiestazioarekin lotzen direnak. Azpiestazio hori konexio puntutik 1.600 metro ingurura dago, eta bertara ebakutatzen du, halaber, i-DEren Vitoria-Gasteiz-GOIAIN 1-2 (30 kV) lineak.

Adierazi behar da azterketa eremuan HELIOS Vitoria-Gasteiz 1 eta HELIOS Vitoria-Gasteiz 2 eguzki instalazio fotovoltaikoak ere izapidetzen ari direla (ipar ekialdera, 2.400 m ingurura), baita BITXILORE ORUBEA ere (hego ekialdera, 2.300 m ingurura), eta MIRITXA parke eolikoan sortutako energia i-DEren Vitoria azpiestaziora eramaten duen tentsio ertaineko aireko linea elektrikoa ere. Hurrengo irudian ikus daitekeenez, eremu horretan aireko linea elektriko ugari daude, azpiestazio elektriko batetik hurbil dagoelako. Arrazoi beragatik, instalazio fotovoltaiko ugari ere proiektatzen ari dira. Horrenbestez, instalazio horien ondorio metagarriak eta sinergikoak kontuan hartu behar dira.



11. irudia. EKI BAT EIFVaren (laranjaz), EKI BI EIFVaren (arrosaz) eta ARRATZUA EIFVaren (gorriz) inguruko beste EIFV batzuk: Vitoria-Gasteiz 1. ORUBEA EIFVa (horiz), Vitoria-Gasteiz 2. ORUBEA EIFVa (arrosaz), HELIOS VITORIA 1 eta 2 EIFVak (urdinez) eta BITXILORE ORUBEA EIFVa (berdez)

5. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

4.4 apartatua azaldu den bezala, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren iritziz ez da egokia EKI BAT eta EKI BI eguzki instalazio fotovoltaikeen plan berezia garatzeko proposatutako eremua. Izan ere, landaredi naturalaren eta habitaten gainean onartezina den ingurumen inpaktua eragingo luke. Eremu horretan, hostozabalen landaketa berri batek, erkametzen landaketak, modu homogeneoan estaltzen du lurzatia, eta, zuhaixken eta sastrakadiaren geruzarekin batera, basoa birsortzeko lehen etapa eratzen du. Ingurunea lehengoratzeko jarduketa horien ondorioz, landarediaren bilakaera nabarmena antzematen da dagoeneko, eta, 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera, Batasunaren intereseko habitatak daudela egiaztatu da.

Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak EKI BAT eta EKI BI EIFVei dagokienez, prozedura honetan eragindako administrazio publikoei egindako kontsulten fasean emandako txostenean azaltzen duenez, instalazio horietarako hautatutako kokapena bat dator, osorik, Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren basoko eta baso - mendi mehatzeko kategorietako lurzoruekin (mendi gaitzaren barruan). Halaber, egiaztatu da eragindako azalerak (1162_B azpilurzatia) baso izaera izan duela aireko ortoargazkien erregistroak daudenetik. Mendi Zerbitzuaren iritziz, "azalera horietan ez lirateke mota horretako azpiegiturak kokatu behar, haien natura balioen iraupena eta kontserbazioa bermatzeko".

EKI BAT eta EKI BI EIFVei dagokienez, oso garrantzitsutzat jotzen da, halaber, plan bereziak lurzatia zeharkatzen duen lotura korridore ekologikoan (Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritza) eta, ondorioz, konektibitate ekologikoan izango duen eragina. Gainera, kontuan hartu behar da eremu horretan beste eguzki instalazio fotovoltaike batzuk ere proiektatuta daudela, eta, horren ondorioz, ondorio metagarri eta sinergiko larriak sortuko lirateke.

ARRATZUA EIFVari dagokionez, 302-2 Larragana onura publikoko mendiaren mugakidea den eremua da. Gainera, erkametzen baso trinkoa dagoenez, instalazioa gutxienez 25 metro atzeratu beharko litzateke, sute arriskua saihesteko.

Bestalde, lehen adierazi den bezala, ARRATZUA EIFVa ezarriko litzatekeen lurzatia Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren balio estrategiko handiko azpikategorian sailkatuta dago, eta Noryeste Ureztatzaileen Elkarteko ureztatutako lurzatia da. Horregatik, nekazaritzaren arloan eskumena duen foru organoak txostena eman du eragindako administrazio publikoei egindako kontsulten fasean, eta, Nekazaritza eta Basogintzako LPSan ezarritakoarekin bat etorriz, Nekazaritzaren Arloko Eraginaren Ebaluazio Protokoloa (NAEEP) egin du. Protokolo horren ondorioa da ARRATZUA instalazio fotovoltaikoa ez dela erabilera onargarria, Arratzua-Ubarrundiako udalerrian eta haren inguruan Nekazaritza eta Basogintzako LPSak nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko balio estrategiko handiko azpikategorian sailkatutako lurzoruetan eragingo lukeen eraginagatik.

Horrenbestez, azaldutako gogoetak kontuan hartuta, kontrako txostena ematen zaie ARRATZUA, EKI BAT eta EKI BI izeneko eguzki instalazio fotovoltaikei buruzko plan bereziaren bi esparruei, uste baita plan berezia ingurumen arrazoiengatik argi eta garbi bideraezina dela.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa dauzkadan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Kontrako izaeraz formulatzea Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrietako lurzoru urbanizaezinean kokatutako "Arratzua", "Eki Bat" eta "Eki Bi" eguzki instalazio fotovoltaikei buruzko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua araber.

Hirugarrena. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, plana onetsi eta hamar egun balioduneko epean, organo substantiboak, hau da, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, honako hauek bidaliko ditu «Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean» argitaratzeko:

a) Plana ontzat emateko edo onesteko ebazpena, eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jendearen eskura jartzeko helbide elektronikoaren aipamena.

b) Ingurumen txosten estrategikoa argitaratu den «Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren» erreferentzia.

Laugarrena. Ebazpen hau jendaurrean jartzea, «Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean» eta Arabako Foru Aldundiko Garapen Ekonomikoaren eta Jasangarritasunaren Sailearen egoitza elektronikoan argitaratuz.

Bosgarrena. Ebazpen hau Arratzua-Ubarrundiako eta Vitoria-Gasteizko udalei eta Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren Zuzendaritzari jakinaraztea.

Seigarrena. 21/2013 Legearen 31.5. artikuluaekin bat etorriz, ez da ingurumen-txosten estrategiko honen aurkako errekurtsorik jarriko, betiere, hala denean, plana edo programa onetsi duen xedapen orokorraren kontra bide judizialek egokiak diren errekurtsoei kalterik egin gabe edo, bestela, plana edo programa onesteko ekintzaren kontra administrazio-bidean egokiak diren errekurtsoei kalterik egin gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 28a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA